

BATZAR AGIRIAK

1978 - I - 29

Hernanin, Meza Nagusiaren ondoren, Udaletxean bildu dira, 1978.e-ko Urtarrilaren 29an, Agustin Pascual Iturriaga euskal idazlearen 2. mendehurrenaren ospakizuna dela eta:

L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, J. San Martin idazkari, A. Irigoyen, P. Lafitte eta A. Zabala euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez Enparantza, J. M. Aranalde, M. Atxaga, J. Fdez. Setien, J. Garmendia Kortadi, X. Kintana, I. Laspiur, J. L. Lizundia, J. M. Mujika, K. Santamaria, I. Sarasola, J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak.

Agintarien aldetik mahaiburuan eseri dira Iruin jauna, herriko alkate, Oyarzabal jauna, Probintziako Gobernadorea, eta Egia jauna, Gipuzkoa Diputazioko lehendakari ordea.

J. L. Davant, X. Diharce, E. Erkiaga, E. Larre eta P. Larzabalek ezin etorria adierazi dute. E. Knörr, J. M. Satrustegi elurrarengatik ezin etorri izan dira.

Lehendabizi Iruin, Alkate jaunak, Hernaniko herriaren izenez ongi etorria eman du.

Ondoren, Euskaltzainburuak agur batez adierazi du nola Euskaltzaindiak ohitura duen Euskal Herrian zehar honelako batzarre irekiak egitea euskararen alorrean saiatu diren gizon ospetsuen mendehurrenatan, eta, horrela, egun, Hernanira etorri dela bertoko seme Agustin Pascual Iturriagaren 200. urteurrena gomutatuz.

A. Jose Ignazio Lasak bere hitzaldia eskaini du: "A. Iturriagaren bizitzaz", xehetasun ugari emanez. Bide batez, agintariei eskakizun bat egin zien, halegia, Valladolideko Unibertsitatean dauden Oinatiko Unibertsitate ohiaren "artxibo ondasunak" hona ekartzeko, zeren hara joan behar izan baitzuen P. Iturriagaren datu zehatzen bila.

Ibon Sarasola, euskaltzain laguntzailea, "A. Iturriaga, euskal idazle" gaiaz mintzatu zen, zera nabarmenduz, garai hartako euskal idazleak ohi ez bezala eliz gaietatik kanpoko literatur emaitzetan sakonduz.

J. San Martin, euskaltzaindiko idazkariak, "A. Pascual Iturriaga eta euskararen instituzionalizatzear" egin zuen bere hitzaldia. Nola euskara eskoletan sartzeaz eta hizkuntzaren praxisaz aintzindari nola izan zen azaldu zuen batez ere. Hernaniko institutuari Pascual Iturriaga izena jarzea proposatu du azkenik.

J. L. Lizundia, Euskaltzaindiko "Herri Izendegi"-ko batzorde idazkariak Euskal Udalen izendegia aurkeztu du adieraziz nola zuzenketa epea

egun hontan amaitzen zen eta orain batzordeak aztertuko dituen Euskal Herriko Udal batzarrei eta gizakomunikabideei dei bat eginez, hauei zabalkundea eskatuz eta haiei Euskaltzaindiak euskararen aldetik finkatuko duen Izendegi hau beraiek Administralgo alorretik ofizial dezatela.

Bukatzeko Deustuko Unibertsitatean eginiko euskal irakasleen etsamina diploma eta karnet banatzea egin zen.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN